



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo kirol-elkarteei, 2024ean, atletismo eta belodromoko txirrindularitza modalitateetan, kirol-programak edo ekintzak sustatzeko diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko deialdia

1. Oinarri arautzaileak.

Bi mila eta hamaseiko uztailaren hamalauko osoko bilkuran, udalbatzak erabaki zuen onartzea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko erakundeei edo kirol-elkarteei diru-laguntzak norgehiagoka araubidean emateko oinarri arautzaile espezifikoak; horien bidez, atletismo, trinketa eta belodromoko txirrindularitza modalitateetan, kirol-programak edo ekintzak sustatzeko (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 172/2016 alean argitaratu zen, irailaren 8an), eta, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hogeiko osoko bilkuran aldatzea erabaki zen, (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 182/2017 alean argitaratu zen, irailaren 22an).

Hala oinarriak eta deialdia, nola eskabide-eredua eta gainerako eranskinak Amankomunazgoaren webgunean daude ikusgai: www.dma@eus.

Horrez gain, informazioa, eskabide-eredua eta eranskinak Amankomunazgoko bulegoan daude eskuragai; hau da, Landako Etorbidea, 4; 101 Moduluan, Durangon.

Jendaurreko zerbitzua astelehenetik ostiralera eskaintzen da, 9:00etatik 13:00etara.

2. Diru-laguntzen helburua eta xedea.

Diru-laguntzen xedea urteko kirol egitaraua eta jarduerak egitea izango da, atletismoa, eta belodromoko txirrindularitza modalitateetan, Amankomunazgoaren kirol instalazioen barruan, eta lotuta egongo dira erakundearen eskumeneko xedeak osatzen edo ordezkatzeko dituen interes publiko edo sozialeko xede bat betetzeari.

Diruz lagun daitezkeen egitarauak edo jarduerak deialdiaren urte naturalean garatu beharko dira, eta hurrengo modalitate hauetakoren baten arabera zehaztu:

- Kirol erakundeen urteko egitaraua atletismoko espezialitatean.

Atletismo arloan, urteko programak Amankomunazgoko herrietako kirolari kopurua kirolari federatuen %30a baino handiagoa den kasuetan bakarrik finantzatuko dira.

- Pistako txirrindularitzaren sustatze eta prestakuntza praktikoko egitaraua.

3. Gehieneko zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua.

Deialdiaren zenbatekoa, guztira, berrogeita zazpi mila eurokoa da -47.000 €-, eta 3411.481.02 eta 3412.481.01 aurrekontu-sailari egokituko zaie; alegia, "2024ko diru-laguntzak" atalari.

Kirol modalitate bakoitzaren zenbatekoa izango da gehienez:

3411.481.01: Belodromoaren sustapena: diru-laguntzak	7.000,00 €
3412.481.02: Atletismo Pistaren sustapena: diru-laguntzak	40.000,00 €



4. Emakidaren erregimena.

Diru-laguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da; eskabideak elkarrekin alderatuko dira, eta, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako publizitate, lehia, gardentasun, objektibotasun, berdintasun, bereizkeria eza, eraginkortasun eta eragimen printzipioak bermatuko dira.

5. Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak eta egiaztatzeak erak.

Deialdi honek eskainitako diru-laguntzen onura jaso ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten entitateek edo irabazi-asmorik gabeko elkarteek:

a) Eusko Jaurilaritzaren Elkartearen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea.

b) Euren sozietatearen egoitza Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako batean dutenek.

c) Amankomunazgoko kirol instalazioetan diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzeko proiektuak dituztenek.

d) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzea.

e) Diruz lagundutako ekintza gauzatzea eta oinarri arautzaileen seigarren puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztea.

Entitate bakoitzak eskaera bakarra aurkeztu dezake.

6. Diru-laguntzaren emakida izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak.

Kudeaketa-zerbitzuari dagokio prozedura izapidetzea.

Diru-laguntzak emateko onespena eta ebazpena egiteko organo eskuduna presidentea edo hark eskuordetutako organoa izango da, Herritarren Informazio Batzordeak proposatuta, eta zerbitzu teknikoak dagokion txostena egin ondoren.

7. Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita. Eskabideak presidenteari beharko zaizkio eta onuradunak edo, hala badagokio, legezko ordezkariak sinatu beharko ditu.

8. Eskabideak aurkezteko era.

Diru-laguntzen eskabideak eredu ofizialean araberakoak izango dira (I. eranskina), eta bide telematikoen bidez aurkeztu beharko dira egoitza elektronikoa:

<https://www.dma.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=1e564add-d1ac-e211-b9d8-00237d32158c>



edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Erakunde bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu ahal izango du.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak

Diru-laguntza eskabidea guztiz beteta eta sinatuta egon beharko da, eta, horrekin batera, agiri osagarri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Erakunde edo elkartearen estatutuen kopia konpultsatua.
2. Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria: jatorrizkoa edo kopia konpultsatua.
3. Elkartearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia konpultsatua.
4. Erakundearen legezko ordezkariaren nortasun-agiri nazionalaren kopia konpultsatua.
5. Behar bezala eta dagokion erregistro ofizialean inskribatutako organo eta ordezkariaren izendapenaren akordioaren ziurtagiria.
- 6.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak.
7. Erakundearen legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitorpena, erakundea diru-laguntzak eskuratzetik ezgaituta ez dagoela esanez. (II. Eranskina)
8. Erantzukizunpeko aitorpena, diru-laguntzara aurkeztu den proiekturako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutakoa edo haiengandik jasotakoa adieraziz. (III. Eranskina)
9. Jardueraren diru-sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua. (IV. Eranskina)
10. Diru-laguntza eskatzeko azaldu den jarduera zehatza edo urteko jarduera-programa, kostu ekonomikoa zehaztuz.

Programak zehatz identifikatu eta azalduta egon beharko dira, honakoak azalduz: helburuak, jarduerak egiteko leku eta egunak, parte hartuko duten kirolari eta talde kopuruak (gutxi gorabehera), kategoriak eta sexuak, lehiaketak, kirola sustatzeko jarduerak eta erabiliko diren instalazioak. Halaber, jarduera horien aurrekontu-banaketa ere egin beharko da.
- Nahitaez, zehatz agerrarazi beharko da programa edo jarduerak hasteko edo amaitzeko aurreikusi den eguna.
11. Diru-laguntza emateko alegatutako merezimenduei buruzko egiaztagiria, eta bereziki talde-zerrenda eta kirolari federatuen izen-zerrenda eta NAN.
12. Elkartearen titulartasuneko kontua, banku-erakundeak behar bezala ziurtatuta. (V Eranskina)



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

9. Eskaerak baloratzeko irizpideak.

Jarraian ezarri diren balorazio-irizpideak oinarri hartuta esleituko dira diru-laguntzak, emandako haztapenaren arabera:

a) Urteko programa atletismo espezialitatean

1. Proiektuak bere osotasunean duen kalitate teknikoaren arabera:

Ume eta gazteen artean atletismoaren sustapena, ekitaldi hasieran lizentzia aktiboa duten entrenatzaileen formakuntza teknikoa, programatutako ekintzak, Durangaldean antolatutako beste kirol ekintzen antolaketa (atletismo-pistatik kanpora), etab. baloratuko dira.

Gehienez 30 puntu

2. Deialdia egiten den urtean klubak kirol txapelketa federatuetan parte-hartzeagatik (talde bezala); gehienez 15 puntu.

Bizkaiko txapelketetan parte-hartzeagatik:

Txapelketa bakoitzeko 0,5 puntu: gehienez 5 puntu.

Euskal Autonomi Elkarteko txapelketetan:

Txapelketa bakoitzeko 0,75 puntu: gehienez 5 puntu.

Espainiar estatu mailako txapelketetan:

Txapelketa bakoitzeko puntu 1: gehienez 5 puntu.

3. Elkartean dauden Amankomunazgoko herrietako kirolari kopuruagatik: gehienez 10 puntu.

Kopurua	Puntuak
10 kirolaritik 20 kirolarira:	3
21 kirolaritik 30 kirolarira:	5
31 kirolaritik 40 kirolarira:	7
41 kirolari baino gehiago:	10

4. Elkartearen Bizkaiko kirolari federatuen kopuruagatik (Amankomunazgoko herrietako kirolariak kenduta): gehienez 5 puntu.

Kopurua	Puntuak
5 kirolaritik 10 kirolarira:	2
11 kirolaritik 15 kirolarira:	3
16 kirolaritik 20 kirolarira:	4
21 kirolari baino gehiago:	5

5. Landako atletismo pistan antolatutako txapelketa federatuengatik (ez herrikoiak): gehienez 10 puntu.

Txapelketa bakoitzeko Puntuak

Probintzia: 2

Txapelketa bakoitzeko 0,5 puntu: gehienez 2 puntu.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Autonomikoak 3
Txapelketa bakoitzeko puntu 1: gehienez 3 puntu.

Estatu mailakoak: 5
Txapelketa bakoitzeko 2,5 puntu: gehienez 5 puntu.

6. Parte hartzaileen kopuru osoko emakumeen ehunekoaren arabera: gehienez 10 puntu

Portzentajea	Puntuak
% 20 - % 20	2
% 31 - % 40	4
% 41 - % 50	8
% 51tik gora	10

7. Desgaitasun fisiko / psikikoak edota sentsozialak dituzten pertsonen gizarteratzea bultzatzen duten jarduerak egitearen arabera (jarduera irekiak edo programa zehatzak): gehienez 5 puntu.

- Pertsona horiek integratzeko egoerak ekartzen dituzten jarduerak egitearen arabera: 2 puntu.

- Desgaitasuna duten pertsonen elkarrekin lankidetzan edo zuzenean komunitate horrentzako programa zehatzak egitearen arabera: 3 puntu

8. Diruz lagun daitekeen aurrekontua:

Kirol erakunde bakoitzak aurkeztutako gastuen aurrekontutik diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoak bakarrik gehituko dira, baturaren emaitzari dagokion puntuazioa esleitzuz, honako eskala honen arabera:

Diruz lagun daitekeen aurrekontua: 10 puntu

5.000€ra bitartean	2
5.001 eta 15000 € bitartean	5
15.001 eta 25.000 € bitartean	8
25.001 €tik gora	10

9. Diruz lagundutako jardueraren aurrekontuan ez dauden kanpoko finantziazio-iturriengatik; esaterako, babesletzak, lankidetzak edo bestelako baliabideak (beste administrazio batzuen diru-laguntzak izan ezik): 5 puntura bitarte.

% 10era arte	2
% 11tik %20ra bitarte	3
% 21etik % 30era bitarte	4
% 31tik Aurrera	5

Diru-laguntza lortu ahal izateko, entitate eskatzaileak gutxienez **50 puntu** eskuratu beharko ditu balorazio globalean.

B) Pistako txirrindularitza sustatzeko eta prestakuntza praktikoa emateko programak, Berrizko belodromoan.

1. Programako parte hartzaileen kopuruaren arabera: gehienez 35 puntu.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Zenbakia	Puntuak
10 parte hartzaile arte	10
11 eta 20 parte hartzaile artean	15
21 eta 30 parte hartzaile artean	20
31 eta 40 parte hartzaile artean	25
41 eta 50 parte hartzaile artean	30
arte hartzailetik gora	35

2. Programaren egun edo jardunaldi kopuruaren arabera: gehienez 35 puntu.

Urteko jardunaldiak	Puntuak
Urtean 10 jardunaldi arte	10
Urtean 11 eta 20 jardunaldi artean	15
Urtean 21 eta 30 jardunaldi artean	20
Urtean 31 eta 40 jardunaldi artean	25
Urtean 41 eta 50 jardunaldi artean	30
Urtean 51 jardunalditik gora	35

3. Parte hartzaileen kopuru osoko emakumeen ehunekoaren arabera: gehienez 20 puntu.

Porzentaia	Puntuak
% 5 arte	4
% 5 - % 10	8
% 11 - % 15	12
% 16 - % 20	16
% 21 - % 25	20

4. Desgaitasuna duten pertsonak integratzeko egoerak ekartzen dituzten jarduerak proposatzearen arabera: 10 puntu.

Desgaitasuna duten pertsonen irekitako programa: 10

Diru-laguntza lortu ahal izateko, entitate eskatzaileak gutxienez 50 puntu eskuratu beharko ditu balorazio globalean.

10. Diru-laguntzen zenbatekoa.

Kirol erakunde bakoitzaren diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko prozedura honako prozedura honen arabera mugatuko da:

- Diru-laguntza eskaerak kirol modalitate bakoitzerako finkatutako balorazio irizpide objektiboen arabera baloratuko dira, eta modalitate bakoitzean diru-laguntza eskaerei esleitutako puntu guztiak batuko dira.

- Egitarau funtzional bakoitzeko (atletismoa edo belodromoa) kredituaren zenbatekoa kirol espezialitatean elkartzen diren eskaerei esleitutako puntu guztien artean banatuko da, puntu bakoitzaren balio ekonomikoa (puntu-tipoa) eskuratzeko helburuarekin

- Kirol erakunde bakoitzaren diru-laguntzaren zenbatekoa puntu kopuru osoaren eta puntu bakoitzari (puntu-tipoa) esleitutako balio ekonomikoaren arteko biderketaren emaitza izango da.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Diru-laguntzaren zenbatekoa, baliabide kualitatibo eta kuantitatiboak aintzat hartuta, ekintza egin ahal izateko beharrezkotzat onartutakoaren arabera diruz lagun daitekeen aurrekontuaren %85 izango da gehienez.

Nolanahi ere, atletismo modalitatean diru-laguntza 20.000,00 €koa izango da gehienez.

Belodromoko txirrindularitza modalitatean diru-laguntza 7.000,00 €koa izango da gehienez.

Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera, ezin izango du inola ere erakunde onuradunak egingo duen jardueraren kostu osoa gainditu. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan gehiegizko finantziakzioa egon dela ikusi bada, gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.

11. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Ebazpena egin eta jakinarazteko epea, gehienez, sei hilekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsitzat jo ahal izango dute.

12. Jakinarazteko bideak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko zaie interesdunei emakidaren ebazpena. Jakinarazpen edo argitalpen hori gauzatzeko aipatutako Legearen 43. artikuluan agertzen diren xedapenak bete beharko dira.

13. Errekurtsoak.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean. Dena dela, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Durangon, 2024ko martxoaren 22an.

Presidente, Idoia Otaduy Uriarte andrea.